

| Administrazio espedientea / Expediente administrativo |   |
|---|---|
| Espediente zk.<br>Nº expediente                       |   |
| Interesduna<br>Persona interesada                     | NAN / IFZ<br>DNI / NIF  |
| Gaia<br>Asunto  | Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea<br>Derecho de acceso a la información pública |

#### Aurrekariak

Eskabidea: Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea  
Eskabide-data: 2026/05/06

#### Antecedentes

Solicitud: Derecho de acceso a la información pública  
Fecha de solicitud: 06/05/2026

#### Aplikatu beharreko araudia

[Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua.](#)

#### Normativa aplicable

[Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.](#)

#### Ebazpena

**LEHENENGOA.** - ONARTZEA eskatutako informazio publikoa eskuratzeko eskaera.  
**BIGARRENA.**- Eskuratu daitekeen informazioa honela emango da: eranskina.  
**HIRUGARRENA.** - Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

#### Resolución

**PRIMERO.** – ADMITIR la solicitud de acceso a la información pública solicitada.  
**SEGUNDO.**- La información cuyo acceso se autoriza se proporciona de la siguiente forma: anexo adjunto.  
**TERCERO.** - Notificar la presente resolución a la persona interesada..

#### Ebazpen honen aurkako errekurtsuak

Ebazpen honen aurka erreklamazioa jarri ahal izango zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeari, hilabeteko epean, otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 24.5 artikuluan xedatzen denaren arabera. Interesatuak zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua, bi (2) hilabeteko epean, aurkeztu ahal izango du, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan; bi kasuetan, jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

#### Recursos contra la presente Resolución

Contra la presente resolución podrá interponerse reclamación ante la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes con arreglo a lo establecido en el artículo 24.5 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, o bien directamente recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en ambos casos a partir del día siguiente a su recepción .

Sin./Fdo.: JOSU XABIER LLANO HERNAIZ - 2026-05-08  
GOBERNAM. ONAREN ETA HERRIT.LAGUNTZ. ETA ZERB.DIG.ZUZ.NAG.-REN ZUZENDARI NAGUSIA  
DIRECTOR/A GENERAL DE DIR.GEN. BUEN GOBIERNO, ATENCIÓN CIUDADANA Y SERV.DIGITALES

Akordioa/Acuerdo: R3 00077/2026 - Data/Fecha: 2026-05-08  
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2026-05-08

HERRI-ARAUGINTZAKO EKIMENA ARAUTZEN DUEN BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU-ARAUAREN AURREPROIEKTUAREN AURRERAPENARI BURUZKO AURRETIAZKO KONTSULTAREN IZAPIDEA.

TRÁMITE DE CONSULTA PREVIA DEL AVANCE DEL ANTEPROYECTO DE NORMA FORAL DE LA DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA POR LA QUE SE REGULA LA INICIATIVA NORMATIVA POPULAR.

Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteak, Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, herritarrek bizitza instituzionalean parte har dezaten sustatzea du helburu. Zuzendaritza honen lehentasunezko helburua da, partaidetzaren arloan, Bizkaiko Foru Aldundiak herritarren eta gizartearen partaidetzarekin duen konpromisoa bultzatzea Bizkaian partaidetza handiagoa eta hobe bultzatuz, eta parte hartzeko guneak eta tresnak herritar guztiei. Betiere, parte-hartzea Bizkaiko garapen jasangarrian aurrera egiteko irtenbide, adostasun eta lankidetzak berriak ekarriko dituen tresna dinamizatzailea izan dadin.

El Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa a través de la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia, tiene como misión el impulso de la participación de la ciudadanía en la vida institucional. Es objetivo prioritario de esta Dirección en materia de participación impulsar el compromiso de la Diputación Foral de Bizkaia con la participación ciudadana y social, propiciando más y mejor participación en Bizkaia, acercando los espacios e instrumentos de participación a toda la ciudadanía. Siempre con el objetivo final de que la participación sea un instrumento dinamizador que aporte nuevas soluciones, nuevos consensos y nuevas colaboraciones para avanzar en el desarrollo sostenible de Bizkaia.

**a.-Araudi berriarekin konpondu nahi den arazoa.**

1985eko ekainaren 28an, Bizkaiko Foru Aldundiak ekainaren 28ko 4/1985 Foru Araua onartu zuen, herri-araugintzako ekimena arautzen duena.

35 urte baino gehiago igaro dira ordutik, eta araudiaren eta legegintzaren esparruan izandako bilakaeraz gain, egoera politiko, juridiko, sozial eta teknologikoan ere aldaketa nabarmena izan du. Herritarrek gai publikoetan modu aktiboan parte hartzeko nahia erakutsi dute, partaidetza-politikak sendotu egin dira eta kanal digitalen existentziak eta garapenak herritarren eta administrazio publikoen arteko harreman-bideak eraldatu ditu. Era berean, gaur egun administrazio elektronikoari eta datu pertsonalen babesari buruzko legeria dago, eta azken horrek sinadura-bilketaren eremuarekin duen

**a.-Problema que se pretende solucionar con la nueva regulación.**

El 28 de junio de 1985 la Diputación Foral de Bizkaia aprobó la Norma Foral 4/1985 de 28 de junio por la que se regula la iniciativa normativa popular.

Han transcurrido más de 35 años desde entonces y además de la evolución habida en el ámbito normativo y legislativo, el escenario político, jurídico, social y tecnológico ha sufrido también una notable transformación. La ciudadanía ha dado muestra de su deseo de participar activamente en los asuntos públicos, las políticas de participación se han consolidado y la existencia y el desarrollo de los canales digitales ha transformado los cauces de relación entre la ciudadanía y las administraciones públicas. Asimismo hoy en día existe legislación sobre la administración electrónica así como sobre la protección de datos personales, siendo obvia la



harremana begi bistakoa da.

relación de esta última con el ámbito de la recogida de firmas.

Beraz, beharrezkoa da herri-araugintzako ekimenari buruzko erregulazioa eguneratzea, egungo araudi- eta legegintza-esparrura eta errealitate politiko, juridiko, sozial eta teknologikora egokitzeko.

Se hace necesario, por tanto, actualizar la regulación sobre la iniciativa normativa popular para adecuarla al marco normativo y legislativo actual y a la realidad política, jurídica, social y tecnológica.

#### **b.-Arau-testua onartzeko beharra eta egokitasuna.**

#### **b.-Necesidad y oportunidad de aprobar el texto normativo.**

Herri ekimen arauemailea arautzen duen ekainaren 28ko 4/1985 Foru Araua berrikusi ondoren, lege-arkuaren eta errealitate sozial, politiko, juridiko eta teknologikoaren arabera eguneratzeko beharra agerikoa da.

Tras la revisión de la Norma Foral 4/1985 de 28 de junio reguladora de la iniciativa normativa popular, la necesidad de actualización conforme al arco legislativo y a la realidad social, política, jurídica y tecnológica es evidente.

Testuinguru horretan, beharrezkoa eta egokia da herri-araugintzako ekimena arautuko duen foru-arau berri bat egitea, helburu hauekin:

En este contexto se torna necesario y pertinente elaborar una nueva Norma Foral reguladora de la iniciativa normativa popular a fin de:

- Tresna erregulatzaileria egokitzea datuen babesaren eta hizkuntza-normalizazioaren arloan sortutako legedira.
- Arautzeko tresna errealitate sozial, politiko eta teknologikora egokitzea, prozedura arinagoa eta errazagoa lortzeko.
- Herriarren eta gizartearen parte-hartzea sustatzea.

- Adecuar el instrumento regulador a la legislación generada en materia de protección de datos y normalización lingüística.
- Adecuar el instrumento regulador a la realidad social, política y tecnológica, para lograr un procedimiento más ágil y sencillo.
- Fomentar la participación ciudadana y social.

#### **c-Arauaren Xedea**

#### **c-Objetivo de la Norma**

Arauaren helburua herri-ekimena arautzea izango da, egungo errealitate politiko, juridiko, sozial eta teknologikora egokituz.

El objetivo de la Norma será regular la iniciativa normativa popular adecuándola a la realidad política, jurídica, social y tecnológica actual.



**d-Aurkeztutako arazoari beste irtenbide arautzaile eta ez-arautzaile batzuk ematea.**

Herri ekimen arauemailearen erregulazioa hainbat eremutan egokitu behar denez, ekainaren 28ko 4/1985 Foru Arauaren aldaketa ez da aukerarik onena, eta herri ekimen arauemailea arautzen duen Foru Arau berri bat onartzea da, antza, aztertzen ari garen gaiari heltzeko neurririk egokiena.

**d-Existencia de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema presentado.**

Debido a la necesidad de adecuar la regulación de la iniciativa normativa popular en múltiples ámbitos, la modificación de la Norma Foral 4/1985 de 28 de junio, no deviene en la mejor opción y la aprobación de una nueva Norma Foral reguladora de la iniciativa normativa popular parece constituir la medida más idónea para abordar la cuestión que nos ocupa.

HERRI-ARAUGINTZAKO EKIMENA ARAUTZEN DUEN BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU-ARAUAREN AURREPROIEKTUAREN AURRERAPENARI BURUZKO AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEAREN EMAITZEI BURUZKO MEMORIA.

Bizkaiko Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenak prestatzeko prozedura arautzen duen 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan xedatutakoa betetzeko, herri-araugintzako ekimena arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru-Arauaren aurreproiektuaren aurrerapenari buruzko aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea argitaratu zen 2022ko ekainaren 24an, Bizkaiko Foru Aldundiaren web orriaren araudi garapenerako partaidetza prozesuen atalean.

Lehen deskribatutako arau-proposamenari buruz herritarrek egoki iritzitako iradokizunak edo ekarpenak idatziz aurkezteko nahitaezko 15 egunak igaro ondoren, jasotako proposamenei buruzko memoria hau egin behar da.

Epe horretan ez da ekarpenik jaso.

Beraz, ondoriozta daiteke ez dela eragozpenik jaso Foru Arau-proiektuaren izapidetzearen bidez kotasunaren inguruan.

Ondorioz, egokitzat jotzen da arau-testuaren proiektua idaztea, izapidetzearekin jarraitzeko.

MEMORIA SOBRE LOS RESULTADOS DEL TRÁMITE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA DEL AVANCE DEL ANTEPROYECTO DE NORMA FORAL DE LA DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA POR LA QUE SE REGULA LA INICIATIVA NORMATIVA POPULAR.

En cumplimiento de lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, con fecha 24 de junio de 2022 se publicó en el apartado de procesos de participación en normativa de la web de la Diputación Foral de Bizkaia, el trámite de consulta pública previa del avance del proyecto de Norma Foral por la que se regula la iniciativa normativa popular.

Una vez transcurridos los 15 días preceptivos para que la ciudadanía presente por escrito las sugerencias o aportaciones que entienda conveniente sobre la propuesta normativa antes descrita, procede elaborar la presente memoria relativa a las propuestas recibidas.

En dicho plazo no se han recibido aportaciones.

Se puede concluir, por tanto, que no se han recibido objeciones a la procedencia de la tramitación de proyecto de Norma Foral.

En consecuencia, se estima oportuno proceder a la redacción del proyecto de texto normativo a fin de continuar con la tramitación.

Sin./Fdo.: MIREN ELIXABETE ARRIAGA CALVO - 2022-07-12  
PLANEI LAGUNTZEKO ATALEKO BURUA  
JEFE/A SECCIÓN DE ASISTENCIA A PLANES

Sin./Fdo.: LEIRE BEGOÑA VITORICA DONEZAR - 2022-07-13  
GOBERNAMENDU ONERAKO ETA GARDENTASUNERAKO ZUZENDARITZA NAGUS-REN ZUZENDARI NAGUSIA  
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE BUEN GOBIERNO Y TRANSPARENCIA

HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO FORU DIPUTATUAREN FORU AGINDUA, HERRI ARAUGINTZAKO EKIMENA ARAUTZEN DUEN FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEARI BURUZKOA.

#### AURREKARIAK

Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteak, Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, herritarrek bizitza instituzionalean parte har dezaten sustatzea du helburu. Pertsona guztiengana iritsiko den partaidetza, parte hartzeko guneak eta tresnak gure Lurralde Historikoko talde, eskualde eta udalerrietara hurbilduz. Betiere, partaidetza Bizkaiko garapen jasangarrian aurrera egiteko irtenbide, adostasun eta lankidetzak berriak ekarriko dituen tresna dinamizatzailea izan dadin.

1985eko ekainaren 28an, Bizkaiko Foru Aldundiak ekainaren 28ko 4/1985 Foru Araua onartu zuen, herri-araugintzako ekimena arautzen duena.

35 urte baino gehiago igaro dira ordutik, eta araudiaren eta legegintzaren esparruan izandako bilakaeraz gain egoera politiko, juridiko, sozial eta teknologikoak ere eraldaketa nabarmena izan du. Herritarrek gai publikoetan modu aktiboan parte hartzeko nahia erakutsi dute, partaidetza-politikak sendotu egin dira, kanal digitalen existentziak eta garapenak herritarren eta administrazio publikoen arteko harreman-bideak eraldatu ditu. Era berean, gaur egun administrazio elektronikoari eta datu pertsonalen babesari buruzko legeria dago, eta azken horrek sinadura-bilketaren eremuarekin duen harremana begi bistakoa da.

ORDEN FORAL DE LA DIPUTADA FORAL DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES DE INCOACIÓN DEL PROCEDIMIENTO PARA LA ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE NORMA FORAL POR EL QUE SE REGULA LA INICIATIVA NORMATIVA POPULAR

#### ANTECEDENTES

El Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa a través de la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia, tiene como misión el impulso de la participación de la ciudadanía en la vida institucional. Una participación que llegue a todas las personas, acercando los espacios e instrumentos de participación a los diferentes grupos, colectivos, comarcas y municipios de nuestro Territorio Histórico. Siempre con el objetivo final de que la participación sea un instrumento dinamizador que aporte nuevas soluciones, nuevos consensos y nuevas colaboraciones para avanzar en el desarrollo sostenible de Bizkaia.

El 28 de junio de 1985 la Diputación Foral de Bizkaia aprobó la Norma Foral 4/1985 de 28 de junio por la que se regula la iniciativa normativa popular.

Han transcurrido más de 35 años desde entonces y además de la evolución habida en el ámbito normativo y legislativo, el escenario político, jurídico, social y tecnológico ha sufrido también una notable transformación. La ciudadanía ha dado muestra de su deseo de participar activamente en los asuntos públicos, las políticas de participación se han consolidado, la existencia y el desarrollo de los canales digitales ha transformado los cauces de relación entre la ciudadanía y las administraciones públicas. Asimismo hoy en día existe legislación sobre la administración electrónica así como sobre la protección de datos personales, siendo obvia la relación de esta última con el ámbito de la recogida de firmas.



Bestalde, adierazi behar da Bizkaiko Foru Aldundia OGP Gobernu Irekiaren aldeko Aliantzaren parte dela, Eusko Jaurlaritzarekin, Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin, hiru hiriburuetakoa udalekin eta gizarte zibilarekin batera. Euskadiko aliantza hori Euskadiko Gobernu Irekiaren Erakundearteko Bigarren Planean sartuta dago. Plan horren konpromisoen artean, tresna bat aztertzea eta diseinatzea dago, Euskadiko legegintzako/araugintzako/arauzko herri-ekimenetarako proposamenak eta atxikimenduak jasotzea sustatzeko.

Beraz, beharrezkoa da herri-araugintzaren ekimenari buruzko erregulazioa eguneratzea, errealitate politiko, juridiko, sozial eta teknologikora egokitzeko.

#### OINARRI JURIDIKOAK

Xedapen orokor hau prestatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritako izapideak bete behar dira.

87/2021 Foru Dekretuaren 12.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, testu arauemailearen proposamena formalizatu ondoren, xedapen orokor hau egiteko prozedura hastea erabaki behar da.

Ebazteko eskumena zuri dagokizu, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-erakundeen hautaketari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39. eta 66. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 28ko 84/2022 Foru Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera ere (Ahaldun Nagusiaren Kabinetea eta Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetea arautzen dituen Erregelamendua onartzen duena).

Adierazitakoaren ondorioz, txosten hau sinatzen duenak proposamen hau aurkeztu dizu:

Por otro lado, se debe señalar que la Diputación Foral de Bizkaia forma parte de OGP Alianza por el Gobierno Abierto, junto con el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales de Araba y Gipuzkoa, los ayuntamientos de las tres capitales y la sociedad civil. Dicha alianza en Euskadi se encuentra inmersa en el Segundo Plan Interinstitucional por el Gobierno Abierto en Euskadi, entre cuyos compromisos se encuentra el análisis y el diseño de una herramienta para promover la recogida de propuestas y adhesiones para iniciativas legislativas/normativas/reglamentarias populares en Euskadi.

Se hace necesario, por tanto, actualizar la regulación sobre la iniciativa normativa popular para adecuarla a la realidad política, jurídica, social y tecnológica.

#### FUNDAMENTOS JURÍDICOS

La elaboración de esta disposición general ha de realizarse por los trámites establecidos en el Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Bizkaia.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 12.2 del Decreto Foral 87/2021, una vez formalizada la redacción de la propuesta de texto normativo, es preciso acordar la iniciación del procedimiento de elaboración de esta disposición de carácter general.

La competencia para resolver corresponde a V.I. en virtud de lo establecido en los artículos 39 y 66 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como en la Disposición adicional Segunda del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 84/2022, de 28 de junio, por el que se aprueba el Reglamento que regula el Gabinete del Diputado General y el Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa.

Por todo ello, quien suscribe tienen a bien someter a su consideración de V.I. la siguiente propuesta de



## FORU-AGINDUA

BAKARRA.- Herri-araugintzako ekimena arautzen duen Foru Arauaren aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera ematea.

## ORDEN FORAL

ÚNICO.- Acordar la incoación del procedimiento de elaboración del anteproyecto de Norma Foral, por la que se regula la iniciativa normativa popular.

Sin./Fdo.: MIREN ELIXABETE ARRIAGA CALVO - 2022-07-15  
PLANEI LAGUNTZEKO ATALEKO BURUA  
JEFE/A SECCIÓN DE ASISTENCIA A PLANES

Sin./Fdo.: LEIRE BEGOÑA VITORICA DONEZAR - 2022-07-18  
GOBERNAMENDU ONERAKO ETA GARDENTASUNERAKO ZUZENDARITZA NAGUS-REN ZUZENDARI NAGUSIA  
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE BUEN GOBIERNO Y TRANSPARENCIA

Sin./Fdo.: IBON OÑATE ZAMALLOA - 2022-07-18  
KABINETEKO BURUA  
JEFE/A DE GABINETE

Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2022-07-19  
FORU DIPUTATUA ETA IDAZKARIA  
DIPUTADO/A FORAL Y SECRETARIO/A

Akordioa/Acuerdo: OF 05532/2022 - Data/Fecha: 2022-07-19  
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2022-07-19

HERRI-ARAUGINTZAKO EKIMENA ARAUTZEN DUEN FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUAREN ENTZUNALDIAREN ETA INFORMAZIO PUBLIKOAREN IZAPIDEAREN EMAITZEI BURUZKO MEMORIA.

MEMORIA SOBRE LOS RESULTADOS DEL TRÁMITE DE AUDIENCIA E INFORMACIÓN PÚBLICA PREVIA DEL ANTEPROYECTO DE NORMA FORAL POR EL QUE SE REGULA LA INICIATIVA NORMATIVA POPULAR.

2022eko uztailaren 19an, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Diputatuaren 5532/2022 Foru Agindua onetsi zen foru arauaren aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera ematea erabakitzeke helburuarekin. Foru Arau horren bidez, herri-araugintzako ekimena arautzen da.

Con fecha 19 de julio de 2022, se aprobó la Orden Foral 5532/2022 de la Diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, por la que se acordó la incoación del procedimiento de elaboración del anteproyecto de norma foral por la que se regula la iniciativa normativa popular.

Bizkaiko Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura arautzen duen 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan xedatutakoa betetzeko, herri-araugintzako ekimena arautzen duen Foru Arauaren proiektuari dagokion entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea argitaratu zen 2022eko irailaren 8an, Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrialdean araudi garapenaren partaidetza prozesuen atalean. 15 eguneko epea eman zen ekarpenak jasotzeko.

En cumplimiento de lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, con fecha 8 de septiembre de 2022 se publicó en el apartado de procesos participativos en elaboración normativa de la web de la Diputación Foral de Bizkaia, el trámite de audiencia e información pública del proyecto de norma foral por el que se regula la iniciativa normativa popular, concediendo un plazo de 15 días naturales para la recepción de aportaciones.

15 egun igaro ondoren, herritarrek arestian deskribatutako arau proposamenari buruz egoki iritzitako iradokizunak edo ekarpenak idatziz aurkez ditzaten, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidearen emaitzei buruzko memoria hau egin behar da.

Una vez transcurridos los 15 días preceptivos para que la ciudadanía presente por escrito las sugerencias o aportaciones que entienda conveniente sobre la propuesta normativa antes descrita procede elaborar la presente memoria sobre los resultados del trámite de audiencia e información pública.

Epe horretan pertsona partikular baten ekarpen bakarra jaso da, honako iradokizun hau egiten duena:

En dicho plazo se ha recibido una única aportación de una persona particular que realiza la siguiente



"Egokia litzateke arrazoizko epe bat ematea ekimena gauzatu ahal izateko; erabil daitezkeen gaien katalogoa zabaltzea, bai eta egon daitezkeen salbuespenak argiago mugatzea, hura bultzatzen duten dokumentu eta faktoreetarako sarbidea erraztea, parte hartzeko bideak erraztea eta bertako subjektu aktiboen kopurua handitzea ere".

sugerencia: "Sería adecuado dar un plazo razonable para poder ejercer la iniciativa; ampliar el catálogo de materias sobre las que se puede ejercer así como delimitar más claramente las posibles excepciones, facilitar el acceso a los documentos y factores que la impulsan, facilitar los canales de participación y ampliar el número de sujetos activos de la misma".

Ekarpenean adierazitako alderdiak foru-arauaren aurreproiektuaren testuan jada jasota dauden beharrezko elementuak dira

Los aspectos señalados en la aportación son elementos necesarios que ya se contemplan en el texto del anteproyecto de norma foral.

Beraz, egokituz jotzen da testu arauemailea izapidetzen jarraitzea, dekretu proiektuan proposaturiko testuarekin.

En consecuencia, se estima oportuno proceder a la redacción del proyecto de texto normativo en los términos propuestos en el anteproyecto de norma foral.

Sin./Fdo.: MIREN ELIXABETE ARRIAGA CALVO 2022-09-26  
PLANEI LAGUNTZEKO ATALEKO BURUA  
JEFE/A SECCIÓN DE ASISTENCIA A PLANES

Sin./Fdo.: LEIRE BEGOÑA VITORICA DONEZAR 2022-09-26  
GOBERNAMENDU ONERAKO ETA GARDENTASUNERAKO ZUZENDARITZA NAGUS-REN ZUZENDARI NAGUSIA  
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE BUEN GOBIERNO Y TRANSPARENCIA

Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteko Atal Ekonomiko-Administratiboa

Sección Económico-Administrativa del Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa

SAILAREN TXOSTEN JURIDIKOA HERRI-ARAUGINTZAKO EKIMENA ARAUTZEN DUEN FORU-ARAUAREN AURREPROIEKTUA.

INFORME JURÍDICO DEPARTAMENTAL PROYECTO DE NORMA FORAL REGULADORA DE LA INICIATIVA NORMATIVA POPULAR.

Txosten hau **nahitaezkoa da, baina ez loteleslea**, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 16. artikuluan ezarri eta xedatutakoa betetzeko egin da.

El presente informe, que **tiene carácter preceptivo pero no vinculante** se emite al amparo de lo dispuesto en el artículo 16 del Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Hori betez, agiri hau sinatzen duenak honako hau ematen du

En su cumplimiento, quien suscribe viene a emitir el siguiente

#### TXOSTENA

#### INFORME

##### Aurrekariak

##### Antecedentes

Atal honi igorritako dokumentazioa honako hauxe da:

La documentación remitida a esta Sección es la siguiente:

- **Foru Arauaren aurreproiektua.** Horren bidez herri-araugintzako ekimena arautzen da.
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuaren **uztailaren 19ko 5532/2022 Foru Agindua**, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Foru Arau honen aurreproiektua prestatzeko prozedurari. Horren bidez, herri-araugintzako ekimena arautzen da.
- Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio-**txostena**
- **Sailen arteko jakinarazpenaren egiaztagiria.** foru-arauaren aurreproiektua egiteko prozedura hasteko erabakiaren saileri jakinarazi zaielako egiaztagiria.
- **Memoria**, aurretiazko kontsulta eta entzunaldia eta informazio publikoari buruzko memoria
- **Anteproyecto de Norma Foral** reguladora de la iniciativa normativa popular.
- **Orden Foral 5532/2022, de 19 de julio**, de la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, de incoación del procedimiento para la elaboración del anteproyecto de Norma Foral por el que se regula la iniciativa normativa popular.
- **Informe** de evaluación previa del impacto en función de género
- **Acreditación de comunicación** interdepartamental del acuerdo de iniciación del procedimiento de elaboración del referido anteproyecto de norma foral.
- **Memoria** del trámite consulta pública previa y de audiencia e información pública.



## IRIZPIDE JURIDIKOAK

## CONSIDERACIONES JURÍDICAS

### LEHENA. Urteko Arau Plana

### PRIMERA. Plan Anual Normativo.

Xedapen hori **ez dago 2022ko Urteko Araugintza Planean sartuta** Plan hori Bizkaiko Foru Aldundiak 2021eko abenduaren 14an egindako bileran onartutakoa da.

Esta disposición **no está incluida en el Plan Anual Normativo de 2022** aprobado por la Diputación Foral de Bizkaia, en sesión celebrada el 14 de diciembre de 2021.

Hala ere, espedientean dagoen dokumentazioa ikusita, justifikatuta dago Urteko Araugintza Planetik kanpo izapidetzea, “*Bizkaiko Foru Aldundia Gobernu Irekiaren aldeko OGP-Aliantzako kide baita, Eusko Jaurlaritzarekin, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiekin, hiru hiriburuetakoa udalekin eta gizarte zibilarekin batera. Euskadiko aliantza hori **Euskadiko Gobernu Irekiaren Erakundeen arteko Bigarren Planean sartuta dago. Plan horren konpromisoen artean, tresna bat aztertzea eta diseinatzea dago, Euskadiko legegintzako/araugintzako/arauzko herri-ekimenetarako proposamenak eta atxikimenduak jasotzea sustatzeko.***”

No obstante, a la vista de la documentación que obra en el expediente, su tramitación al margen del Plan Anual Normativo (PAN) viene justificada, porque “*la Diputación Foral de Bizkaia forma parte de la OGP-Alianza por el Gobierno Abierto, junto con el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales de Araba y Gipuzkoa, los ayuntamientos de las tres capitales y la sociedad civil. Dicha alianza en Euskadi se encuentra inmersa en el **Segundo Plan Interinstitucional por el Gobierno Abierto en Euskadi** entre cuyos compromisos se encuentra el análisis y el diseño de una herramienta para promover la recogida de propuestas y adhesiones para iniciativas legislativas/normativas/reglamentarias populares en Euskadi.*”

### BIGARRENA. Sailen arteko jakinarazpena, aurretzako kontsulta eta entzunaldia eta informazio publikoa.

### SEGUNDA. Comunicación interdepartamental, consulta pública previa y trámite de audiencia e información pública.

Foru Dekretu horren 12.3 artikulua betez, 2022ko uztailaren 21ean, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak aipatutako foru arauaren aurreproiektua egiteko prozedura hasteko erabakiaren berri eman zien Bizkaiko Foru Aldundiko gainerako sailtako titularrei, eta halaxe dago jasota espedientean.

En cumplimiento del artículo 12.3 del mismo Decreto Foral, el 21 de julio de 2022, la Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, comunicó, y así consta en el expediente, a las personas titulares del resto de departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia, el acuerdo de iniciación del procedimiento de elaboración del referido anteproyecto de norma foral.

Jarduketa-esparru hori garatuz eta aipatu foro Dekretuaren 8. artikuluan xedatutako aurretzako kontsultaren izapidearen ondorioetarako,, adierazi behar da aurretzako kontsulta publikoaren izapidea egin dela eta herritarrek ez dutela inolako ekarpenik edo aldaketa-proposamenik egin.

En desarrollo de dicho marco de actuación y a los efectos del trámite de consulta previa previsto en el art. 8 del Decreto Foral en cuestión, indicar que se ha realizado el correspondiente trámite de consulta pública previa y no se ha recibido aportación ni propuesta de modificación alguna por parte de la ciudadanía.

Era berean, txosten honen xede den

Asimismo, se hace constar que, según se informa en la



aurreproiektuaren aurretiazko entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidearen emaitzei buruzko memorian jakinarazten denez, honako hau jasotzen da: Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/2021 Foru Dekretuaren 13.1 artikulua; 15 eguneko epea eman da ekarpenak jasotzeko, eta epe horretan ekarpen bakarra jaso da aurreproiektuari dagokionez. Hala ere, ekarpen horretan adierazitako alderdiak *“Foru Arauaren aurreproiektuaren testuan jada jasota dauden beharrezko elementuak dira.”*

#### **HIRUGARRENA. Erregulazio onaren printzipioak**

Igorritako proposamena bat dator Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen urtarrilaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan zerrendatutako honako printzipio hauekin: beharrezko eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, azkartasuna eta efizientzia, herritarren parte-hartzea eta kontuak ematea.

#### **LAUGARRENA. Sailaren txosten juridikoa**

Bizkaiko Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoari dagokionez, txosten juridiko honek honako alderdi hauek, zehatz eta argi, azaldu behar ditu:

- Arau-proposamenaren egokitasuna eta beharra.
- Arau-proposamena eskumenen banaketarekin bat datorren edo ez.
- Araugintza-teknika hobetzeko neurriak, beharrezkoak badira.
- Ekonomia eta aurrekontu-eragina, administrazio-kargen identifikazioa eta, hala badagokio, behar diren giza baliabideak eta

memoria sobre los resultados del trámite de audiencia e información pública previa del anteproyecto objeto de este informe, a los efectos del trámite de Audiencia e Información Pública prevista en el art. 13.1 del indicado Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, que se ha concedido un plazo de 15 días para la recepción de aportaciones y que, en dicho plazo se ha recibido una única aportación al respecto del anteproyecto. No obstante, los aspectos señalados en tal aportación son *“elementos necesarios que ya se contemplan en el texto del anteproyecto de Norma Foral.”*

#### **TERCERA. Principios de buena regulación.**

La propuesta remitida es adecuada a los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, celeridad y eficiencia, participación ciudadana y rendición de cuentas enumerados en el artículo 3 del Decreto Foral 87/2021, de 15 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

#### **CUARTA. Informe jurídico departamental.**

En cumplimiento de lo indicado en el artículo 16 del referido Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia el presente informe jurídico tiene como objetivo exponer, con concisión y claridad, los siguientes extremos:

- Oportunidad y necesidad de la propuesta normativa.
- Adecuación de la propuesta normativa al orden de distribución de competencias.
- Mejoras de técnica normativa que, en su caso, se deben incorporar.
- Impacto económico presupuestario, identificación de cargas administrativas y, en su caso, recursos humanos necesarios y



balizko genero-eragina

potencial impacto de género.

#### BOSGARRENA. Arau-proposamenaren aukera eta beharra.

Txosten honen xedea den Foru Arauaren aurreproiektuaren 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, arau berriaren helburua da herri ekimen arauemailea arautzea, egungo errealitate politiko, juridiko, sozial eta teknologikora egokituz.

Xede hori izenpetzen duenaren ustez, egokia izateaz gain, beharrezkoa ere bada, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako diputatuaren uztailaren 19ko 5532/2022 Foru Aginduan adierazten den bezala; izan ere, **35 urte baino gehiago igaro dira** 1985eko ekainaren 28an Bizkaiko Lurralde Historikoko Batzar Nagusiek ekainaren 28ko 4/1985 Foru Araua, herri-araugintzako ekimena arautzen duena, onartu zutenetik eta **asko dira** foru-araua horietara egokitu gabe egin diren arau-, **gizarte- eta teknologia-aldaketak**. Aldi berean, Euskadin gobernu irekian aurrera egiteko Erakunde arteko Bigarren Planaren (2021-2024) 4. konpromisoetako bat da, 4.a hain zuzen ere. Plan hori herritarrekin batera sortu da, eta 5 **konpromiso** hartzen ditu barne, onartu eta **hiru urtetan gauzatu beharrekoak**.

Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak, aipatutako Planari jarraiki, OGPren esparruan, herri-ekimen arauemaileak biltzeko tresna eguneratu bat garatzeko konpromisoa hartu du.

Horren ondorioz, Foru Arau berriak honako helburu hauek lortu nahi ditu:

- a. Herri-araugintzako ekimena arautzeko tresna egokitzea arau-aldaketetara eta, bereziki, administrazio elektronikoaren, datuen babesaren, herritarren parte-hartzearen, berdintasunaren eta hizkuntza-normalizazioaren arloetan gertatutakoetara.

#### QUINTA. Oportunidad y necesidad de la propuesta normativa.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 del anteproyecto de Norma Foral que es objeto de este informe la nueva norma tiene por finalidad la regulación de la iniciativa normativa popular adecuándola a la realidad política, jurídica, social y tecnológica actual.

A juicio de quien suscribe tal finalidad no solo es oportuna, sino que necesaria, tal y como se señala en la Orden Foral 5532/2022, de 19 de julio, de la Diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, **toda vez que han transcurrido más de 35 años** desde que el 28 de junio de 1985 las Juntas Generales del Territorio Histórico de Bizkaia aprobaran la Norma Foral 4/1985 de 28 de junio por la que se regula la iniciativa normativa popular **y múltiples son los cambios normativos, sociales y tecnológicos** habidos sin que la norma foral se adaptara a los mismos, al tiempo que es uno de los compromisos, en concreto el 4º, del Segundo Plan Interinstitucional para avanzar en gobierno abierto en Euskadi 2021-2024. Dicho Plan se aprobó en colaboración con la ciudadanía e incluye hasta 5 **compromisos para poner en marcha en tres años** a partir de su aprobación.

Así pues, la Diputación Foral de Bizkaia, en virtud del meritado Plan, se ha comprometido, en el marco de OGP al desarrollo de una herramienta actualizada de recogida de Iniciativas normativas populares.

